

# EGOERAREN

A Z T E R K E T A


## 91 2003 MAIATZA

- ✓ LANGABEZIA  
1000 PERTSONATAN  
GEHITZEN DA
- ✓ ERREGULAZIO ESPEDIENTEEK  
KALTETUTAKO 4.330 LANGILE  
URTARRILEAN
- ✓ 2002: KONTRATAZIO  
GUZTIAREN %17,5A  
ABLEEN BIDEZ
- ✓ 2001: EBETIK KANPOKO  
JATORRIKO 44.137 ETORKIN  
HEGO EUSKAL HERRIAN
- ✓ GIZARTE MURRIZKETEI  
OPOSIZIO HANDIA FRANTZIA,  
AUSTRIA ETA ALEMANIAN



# Hego Euskal Herriko (\*) egoera ekonomikoaren adierazleak

ADIERAZLEA	NEURRIA	AZKEN DATA	AZKEN DATUA	AZKEN HILEE-TAKO JOERA	12 HILABETE LEHENAGO	2002
<b>ENPLEGUA ETA LANGABEZIA</b>						
JARDUERA TASA	%	03 I	68,9	MANTENDUA	67,7	69,06
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	2001	69	MANTENDUA	68,9	68,9
LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA	KOPURUA	03 I	1.123.700	JAITSIERA	1.115.200	1.129.400
ALOKAIRUPEKO BIZTANLERIA	KOPURUA	03 I	883.600	JAITSIERA	890.200	896.100
ALDI BATERAKOTASUN TASA	%	03 I	30,54	JAITSIERA	31,74	32,01
" EUROPAKO BATASUNA	%	2001	13,2	-	-	13,2
BIZTANLERI LANGABETUA	KOPURUA	03 I	102.200	IGOERA	95.300	101.200
LANGABEZI TASA	%	03 I	8,34	IGOERA	7,87	8,22
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	03 MAR	7,9	MANTENDUA	7,5	7,8
ELGeko "	%	03 OTSA	7,0	JAITSIERA	6,7	7,1
GAZTEEN LANGABEZI TASA	%	03 I	20,48	IGOERA	19,76	18,96
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	03 MAR	15,7	IGOERA	14,8	15,1
EMAKUMEEN LANGABEZI TASA	%	03 I	11,2	MANTENDUA	11,83	11,54
EUROPAKO BATASUNEKO "	%	03 MAR	8,9	MANTENDUA	8,6	8,8
SINATURIKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-API	279.725	-	-	216.026
MUGAGABEKO KONTRATUAK	KOPURUA	03 URT-API	25.7703	-	-	20.039
<b>ENPLEGU ERREGULAZIOA</b>						
ONARTURIKO ESPEDIENTEAK	KOPURUA	03 URT	47	IGOERA	33	423
ERAGINDAKO LANGILEAK	KOPURUA	03 URT	4.330	IGOERA	779	8.130
<b>LAN ISTRIPUAK</b>						
BAJA HARTZEN DUTEN LANGILEAK	KOPURUA	02 URT-ABE	70.736	JAITSIERA	72.297	70.736
HILDAKOAK ETA LARRIAK	KOPURUA	02 URT-ABE	923	IGOERA	908	923
<b>ESKAINZA ETA ESKARIA</b>						
PRODUKZIO INDUSTRIALA EAEn	% ALD.	03 URT-MAR	-0,1	JAITSIERA	1,1	-0,8
JARDUERA INDUSTRIALA NAFARROAn	% ALD.	03 URT	-1,1	-	-	9,0
PRODUKZIO AHALMEN ERABILERA EAEn	%	03 I	80,4	MANTENDUA	-	82,1
BPGa EAEn	% ALD.	02 III	1,7	MANTENDUA	3	1,8
BEGa NAFARROAn	% ALD.	02 IV	3,1	IGOERA	2,2	2,8
BPGa ESTATUAN	% ALD.	02 IV	2,2	IGOERA	2,6	2,1
BPGa EUROPAKO BATASUNEAN	% ALD.	02 IV	1,4	IGOERA	0,7	1,4
<b>PREZIOAK</b>						
12 HILEETAKO KPIa ESTATUAN	%	03 APIRILA	3,1	IGOERA	3,6	4
" EUROPAKO BATASUNEAN	%	03 APIRILA	1,9	MANTENIDO	2,1	2,2
*Adierazleak Hego Euskal Herriari dagozkio. Bestelako kasuan lurraldea zehaztuko da						
91. zbk. <b>Egoeraren Azterketa</b> 2003ko maiatza						



# Aurkibidea

## **SARRERA .....3**

### **EGOERA EKONOMIKOARI**

#### **BURUZKO IRUZKINAK .....4**

1. 2003ko lehen hiruhilekoa: enplegua suntsitu da eta langabezia gehitu .....4
2. Enpleguari buruzko informazioaz .....5
3. Prezioak .....6
4. Ekonomiaren geldotzea eta gizarte gastua .....6

### **HIL HONETAKO**

#### **PUNTAKO GAIK.....8**

1. Aldi baterako laneko enpresak HEHan .....7
2. 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen zentsuak .....7
3. 1999ko Osasunaren kontua EAEn .....8

E K O N O M I

**EGOERAREN**

A Z T E R K E T A

## Sarrera

Egoeraren Azterketaren 91. zenbaki honetan, enpleguak urteko lehen hiruhilekoan Hego Euskal Herrian izandako bilakaera aztertzen dugu; gertakariarik adierazgarriena, 2002ko azken hiruhilekoari jarraitzen dion langabeziaren hazkundera da. Puntako gaietan, Aldi Baterako Laneko Enpresei buruz informazioa eta bilakaera, Osasunaren Kontua EAEn, eta Hego Euskal Herriko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak aztertzen ditugu.

### **ERABILITAKO SIGLAK**

HEH	Hego Euskal Herria
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EB	Europako Batasuna
ELGE	Ekonomi, Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea
BPG	Barne Produktu Gordina
BEG	Balio Erantsi Gordina
KPI	Kontsumorako Prezioen Indizea
BJA	Biztanleria Jardueraren Arabera
BAI	Biztanleria Aktiboaren Inkesta
PII	Produktzio Industrialaren indizea
JII	Jarduera Industrialaren Indizea
Eustat	Euskal Estatistika Institutua
INE	Instituto Nacional de Estadística

*\* Txosten hau 2003.eko maiatzaren 20an eguneratuturiko informazioarekin burutua izan da.*

# Egoera ekonomikoari buruzko iruzkinak

## 1. 2003ko lehen hiruhilekoa: enplegua suntsitu da eta langabezia gehitu

1.222.300 ziren 2003ko lehen hiruhilekoan biztanleria aktiboa osatzen zuten 16 eta 65 urte bitarteko biztanleak. Jarduera tasa %68,9ekoa zen biztanleria honentzat, aurreko urteko bukaerakoa (%69,06) baino zertxobait baxuagoa. Europako Batasuneko (EB) jarduera tasa (%69) inguruan gaude beraz. Emakumeen jarduera tasak (%57,23) gizonezkoenak (%80,4) baino askoz baxuagoa (23,17 puntu) izaten jarraitzen du Hego Euskal Herrian.

Lanean zegoen biztanleria 1.123.700ekoa zen urteko lehen hiruhilekoan, aurrekoan baino 5.700 gutxiago. Biztanleria honen %60a gizonezkoa da, %40a baino ez delarik emakumea. Urteko lehen hiruhilekoan galdu diren 5.700 lanpostuak genero ikuspegi batetik aztertzea interesgarria da. Izan ere, lanean dauden emakumeak aurreko hiruhilekoan baino 400 gehiago dira; horrek esan nahi du, enpleguaren galera gizonezkoetan eman zela, 6.100 gizon gutxiagok dutelarik lanpostu bat aurreko hiruhilekoarekin alderatuz.

Zerbitzuen sektorea da Hego Euskal Herriko biztanleriaren lan iturri nagusia. Zehazki, 2003ko lehen hiruhilekoan lanean zegoen biztanleriaren %59,3ak zerbitzuen sektorean lan egiten zuen. Industriak jarraitzen zion, enpleguaren % 28arekin; ondoren eraikuntza zetorren, %9,6arekin, eta azkenik lehen sektorea, %3,1arekin.

Sektore ezberdinek aurreko hiruhilekoarekiko izandako bilakaera aztertzen badugu, lehen sektoreak 1.700 lanpostutako igoera izan duela ikus dezakegu (2 hamarren gehitu du bere pisua), eta eraikuntzak 4.900eko igoera (5 hamarren gehitu du pisua). Industriak aldiz 1.200 lanpostu galdu ditu hiruhilekoan (bere pisua berdina mantenduz), eta zerbitzuen sektoreak 11.100 lanpostu galdu ditu (7 hamarreneko jaitsiera).

Alokairupeko biztanleria 883.600ekoa izan zen, 2002ko azken hiruhilekoan baino 12.500 gutxiago. Honek esan nahi du, 6.800etan gehitu dela autonomo, kooperatibista, enpresari edo ekonomi jardueretan laguntzen duen biztanleriaren kopurua. Alokairupekotasan tasa %78,63koa izan zen beraz, aurreko hiruhilekoan baino 7 hamarren baxuagoa. Gizonezkoenak (%75,92) emaku-

meenak (%82,66) baino baxuagoa izaten jarraitzen du.

### LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA SEKTOREKA. HEGO EUSKAL HERRIA. 2003-I


	EAE		NAFARROA		HEH	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Lehen sektorea	19.200	2,2	15.400	6,5	34.600	3,1
Industria	247.400	27,9	67.700	28,7	315.100	28,0
Eraikuntza	84.600	9,5	23.200	9,8	107.800	9,6
Zerbitzuak	536.300	60,4	130.000	55,0	666.300	59,3
<b>Guztira</b>	<b>887.400</b>	<b>100,0</b>	<b>236.300</b>	<b>100,0</b>	<b>1.123.700</b>	<b>100,0</b>

Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra

Behin-behinekotasun tasa %30,54koa izan zen 2003ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino 1,5 puntu baxuagoa. Aldi baterakotasun tasa murriztu egin den arren, gogoratu beharra dago, 10 langiletik 3 baino gehiago daudela aldi baterako kontratu batekin, eta Europako Batasuneko tasa (%13,2) baino 2,3 aldiz altuagoa dela gurea. Aldagai honetan ere emakumeak (%37,05eko behin-behinekotasun tasa) gizonezkoak baino askoz ere egoera okerragoan daude. Gazteen behin-behinekotasun tasa puntu erdi igo da hiruhilekoan, %68,32ra iritsiz.

Behin-behinekotasun tasa orokorra jaitsi egin zela urteko lehen hiruhilekoan esan dugu; 2002ko azken hiruhilekoan ere berdina gertatu zen. Ez da kasualitatea enpleguaren kantitatearentzako txarrak diren hiruhilekoetan behin-behinekotasuna murriztea eta enplegua sortu izan den hiruhilekoetan ordea hau gehitu izana. Honek argi erakusten du enplegua sortzen denean baldintza prekarioetan egiten dela, eta enplegua deuseztatzen den hiruhilekoetan, behin-behineko kontratuekin lan merkatuan sartu den langileria erabiltzen dela. Hau da enpresarioek malgutasun deitzen dutena: kaleratze librea eta oso merkea.

Ondoren datorren taulan lanean dagoen biztanleriak, soldatapeko biztanleriak, soldatapekoa ez denak, eta behin-behinekotasunak 2002eko hasieratik hona hiru hilero izandako bilakaera ikus daiteke. Ondorio ziurretara heltzeko denbora tarte luzeagoak aztertu behar badira ere, adierazgarria izan daiteke hemen agertzen dena komentatzea. Enplegua sortu den hiruhilekoetan soldatapeko biztanleria gehitu egin da, soldatapekoa ez den biztanleria baino are gehiago oraindik, eta behin-behinekotasun tasa igo egin da.



Enplegua deuseztatu den hiruhilekoetan ordea, 2002ko azken hiruhilekoan eta 2003ko lehengoan, soldatapeko biztanleria murriztu egin da, soldatapekoa ez den biztanleriak hasiz jarraitu du, eta behin-behinekotasun tasa jaitsi egin da. Konklusio gisa esan daiteke, beraz, enplegua deuseztatzen den hiruhilekoetan, aldi baterako kontratudun alokairupeko biztanleria erabiltzen dela enplegu maila "egokitzeko".

**LANEAN DAGOEN BIZTANLERIA, SOLDATAPEKOA, SOLDATAPEKOA EZ DENA ETA BEHIN-BEHINEKOTASUNA. HIRUHILEROKO ALDAKETAK. 2002-2003**

	02-I	02-II	02-III	02-IV	03-I
Soldatapeko bizt.	22.600	6.700	4.900	-5.700	-12.500
Soldatap. ez den bizt.	-9.900	3.000	3.400	1.900	6.800
Lanean dagoen bizt.	12.700	9.700	8.300	-3.800	-5.700
Behin-behinekotasuna	+1,56 ptu	+0,54 ptu	+0,92 ptu	-1,19 ptu	-1,47 ptu

Iturriak: Eustat eta Instituto de Estadística de Navarra


Sinatzen diren kontratu berrietatik zenbat diren mugagabeak eta zenbat mugatuak alderatzea, behin-behinekotasuna aztertzeke beste era bat da. Honi begiratu bat ematen badiogu, 279.725 kontratu sinatu zirela urtarrila eta apirila bitartean Hego Euskal Herrian ikus dezakegu, hauetarik 25.770 baino ez zirelarik izan mugagabeak. Sinaturiko kontratuen %9,2 baino ez zen izan mugagabea, eta beraz, sinaturiko 10 kontratu berritik 9 baino gehiago aldi baterakoak izan ziren.

102.200 langabetu zeuden 2003ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino 1.000 gehiago. Nahiz eta gutxi, jarduera tasa murriztu egin da; horrela izan ez balitz, langabetuen kopurua gehiago gehitu izango zen. Langabezi tasa %8,34koa da, aurreko hiruhilekokoa baino 0,12 puntu altuagoa, hamabi hilabete lehenago baino 0,47 puntu handiagoa eta Europako Batasunekoa (%7,9) baino 4 hamarren altuagoa. Emakumeen langabezi tasak (%11,2) gizonezkoena (%6,3) baino altuagoa izaten jarraitzen du, eta gazteen langabezi tasak (%20,48) ere, bereziki altua, 1,5 puntu igo ondoren hiruhilekoan.

Ondoren agertzen den grafikoan langabezi tasa ezberdinetan Europako Batasunarekin dugun aldea ikus daiteke. Bertan agertzen denez, langabezi tasa guztiak dira altuagoak gure kasuan,

gizonezkoenean izan ezik. Alderik handiena, gazteen langabezi tasan dugu.

**LANGABEZI TASA EZBERDINAK HEH ETA EUROPAKO BATASUNEAN. 2003KO LEHEN HIRUHILEKOA ETA MARTXOA**



Iturriak: Eustat, Instituto de Estadística de Navarra eta Eurostat

47 enplegu erregulazio espediente sinatu ziren urtarrilean Hego Euskal Herrian, aurreko urteko epealdi berdinean baino 14 gehiago. Aurten onarturiko espedienteek 4.330 langileri eragin zioten, aurreko urteko epealdi berdinean baino 3.551 gehiago. Kopuru hau izugarri handia eta kezkarria da; Arabako Mercedes Benz enpresako ia 3.000 langileen eragina ikus daiteke bertan.

**2. Enpleguaren informazioak traba egiten du hauteskundeetan**

Urteko lehen hiruhilekoko enpleguari buruzko EPAREN informazioa publikatzeko aurreikusitako data maiatzaren 16a bazen ere, apirilaren 29an egin zen berau. Nafarroako enpleguaren informazioa aztertzeke erabiltzen dugu guk EPA, lurralde honetan ez baitago, EAEn gertatzen den bezala, Foru Erkidegorako datu fidagarriagoak edukitzea posible egiten digun estatistika erakunde propioa.

Harridura handia sortarazi zigun datuaren publikazioan aurrerapen honek, ez baita normalean gertatzen den zerbait. EPAREN informazio honen arabera, langabezia igo egin zen bai Nafarroan

eta bai Espainiar Estatuan, 2003ko lehen hiruhilekoan. Hori dela eta, data aurreratzea hauteskundei zegokiola pentsatu genuen une hartan, lehen hiruhilekoko langabeziaren datu txarra hauteskunde garaitik ahalik eta gehien urruntzea alegia, eta era berean, datu honek hauteskunde-en emaitzan izan zezakeen eragin txarra minimizatzea.

Maiatzaren 6an INEMeko langabeziaren datua publikatu zen, eta normalean datu hau aztertzen ez badugu ere, kasu honetan interesgarria deritzogu hau egitea, sakontasun askorekin ez bada ere. INEMeko informazioak langabezian murrizketa bat adierazten zuen apirilean. INEMek emaniko datua EPAk emanikoa baino koiunturalagoa bada ere, eta langabezian murrizketa Aste Santuetako oporretan emaniko aldi baterako kontratazioaren igoera puntualaren ondorio izan badaiteke ere, EPAko datu txarra aurreratzekoan, espainiar gobernuak zera lortu du: hauteskundeak aurretiko enpleguari buruzko azken datua ona izatea txarra izan ordez. Lormen handi hori dela eta bere buruari loreak botaz harro agertzen dira gainera.

Hauteskunde garaian biztanleriarekin nola jokatzen denaren beste adibide bat baino ez da hau; oraingo honetan, informazio publikoarekin nola jolastu daitekeen hauteskunde interesen arabera erakusten du, kasu honetan hain serioa dena.

### **3. Prezioek igoz jarraitzen dute**

Prezioak 8 hamarren igo dira apirilean, soineko eta oinetakoen taldea izan delarik igoerarik handiena pairatu duen taldea, %8,7ko hileko igoerarekin. Bien bitartean, Europako Batasunean mantendu egin dira prezioak aurreko hilearekiko.

Urte arteko KPIa %3,1ean kokatzen da (Europako Batasuneko %1,9an), eta honek zera adierazten du: inflazioa asko jaitsi beharko litzatekeela urte bukaeran Aznarren Gobernuaren aurreikuspena betetzeko. Izan ere, urteko KPI metatua %1,3koa da, eta honek, urtearen heren batetan soilik, urte gutzirako espainiar gobernuaren aurreikuspenen %65a gehitu direla prezioak esan nahi du.


Nahiz eta azken urteetan zifra hau oso labur dela ikusi, espainiar gobernuak %2an jarraitzen du aurreikusten hurrengo urteko KPIa. Hau kaltegarria da beraien konbenioak KPI honen arabera negoziaturik dituzten langileentzat, eta baita

aurreikusitako KPIaren arabera sarrerak gehitzen zaizkien beste kolektiboentzat ere, lanbide arteko gutxieneko soldata jasotzen duten kolektiboak adibidez.

### **4. Ekonomiaren geldotzea eta gizarte gastua**

Egoeraren Azterketaren aurreko zenbakian, Hego Euskal Herriko ekonomiak nolabaiteko hazkunde bat izaten jarraitzen zuela esaten genuen, nahiz eta aurreko urteetako baino motelagoa izan berau. Nazioarteko ekonomietan ere antzeko joera ematen da; alemaniar ekonomia %0,7a handitu zen 2002ko azken hiruhilekoan aurreko urteko epe berdinarekiko, frantziarra %1,5, belgikarra %1,7, espainiarra %2,1, erresuma batuarrak %2,2, estatu batuarrak %2,9 eta irlandarra %6,4. Datu hauek, une berean herrialde bakoitzean hazkunde ekonomiko oso desberdinak ematen ari dela adierazten dute, eta hau azken urteetan ematen ari den zerbait da, bai EBean, eta bai EEBB edo Japonekin alderatuz. Hau da, ziklo ekonomikoak ez dira era homogeen ematen, nahiz eta globalizazio prozesu batean egon.

Azken egunotan jakiten ari garenez, Europako Batasuneko estatu batzuk hasi dira jada hazkunde motelago honi konponbidea bilatu nahian. Honen adibide dira Alemania, Frantzia edo Austria, non erretretetan, langabezi sarietan, gizarte segurantzaren estalduran, osasunean, eta gizarteratzeko gutxieneko diru-laguntza jasotzen dutenen kopuruan besteak beste, murrizketak planteatzen ari diren. Ekonomia suspertu eta defizita murrizteko aitzakiarekin beraz, ongizate estatuaren murrizketa ari dira aurkezten konponbide gisa Europako estatuotan. Antzeko edo bestelako arrazoiak aitzakiatzat hartuta, Espainiar estatua ere jardun da gizarte gastua eta errenta altu eta kapital errenten presio fiskala murriztean datzan eskuinerantz zuzenduriko norabide honetan, eta baita euskal instituzioak ere. Azken hauek era horretako neurriak planteatu dituztenean gertatu den bezalaxe, gobernuak oposizio eta mobilizazio asko aurkitzen ari da sindikatu eta beste mugimendu batzuen aldetik. "Ekonomia larritasun" egoera baten aurrean, gobernu batek aukera ezberdinetara jo dezake, gizarte ongizatea murriztu beharrik gabe. Izan ere, planteamendu hauek egiten diren une berdinean, zergak murrizteko neurriak hartzen dira.



## 1

### Kontratazioaren ia bosten bat ABLE bidez

Azken informazioaren arabera, 2002ko abendua, 80 ziren Hego Euskal Herrian zeuden Aldi Baterako Laneko Enpresak. Gogoratu behar da 1994an onartu zela hauen erabilera posible egiten zuen legea, eta 1995ean hasi zirela martxan. Enpreson bilakaera erakusten duen taula honetan, 1998a izan zela era honetako enpresa gehien egon zen urtea ikus daiteke, orduetik murriztuz joan delarik kopuru hau.

2000. urtea izan zen kontratu kopuru gehien burutu zen urtea, 182.298rekin; urte horretan sinaturiko kontratu guztien %20,68a suposatu zuten kontratuok, eta sinaturiko aldi baterako kontratu guztien %22,49a. Enpresa hauen bidez buruturiko kontratuak, 157.683 izan ziren 2002ko ekitaldian Hego Euskal Herrian, sinaturiko kontratu guztien %17,54a eta aldi baterako %19,15a.

#### ALDI-BATERAKO LANEKO ENPRESAK. HEGO EUSKAL HERRIA. 1994-1995

URTEA	ABLEak			ABLEen kontratuak		
	NAF.	EAE	GUZTIRA	NAF.	EAE	GUZTIRA
1994	13	19	<b>32</b>			
1995	25	61	<b>86</b>	7.430	36.238	<b>43.668</b>
1996	27	67	<b>94</b>	17.753	73.135	<b>90.888</b>
1997	30	67	<b>97</b>	28.478	109.507	<b>137.985</b>
1998	30	72	<b>102</b>	39.325	137.269	<b>176.594</b>
1999	33	66	<b>99</b>	36.171	143.003	<b>179.174</b>
2000	30	58	<b>88</b>	36.927	145.371	<b>182.298</b>
2001	31	58	<b>89</b>	34.969	133.676	<b>168.645</b>
2002	27	53	<b>80</b>	36.340	121.343	<b>157.683</b>

Iturria: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales

## 2

### 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen zentsuak

2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak txostenen emaitzen aurrerapenak argitaratu dira jada bai EAE eta bai Nafarroarako.

Txosten hauen arabera, 20 urtetik beherako biztanleria %19,75ekoa da Nafarroan eta %18,1ekoa EAEn. Europako 17 estatu azertu ondoren, Nafarroa guztion atzetik dagoela ikus daiteke, eta EAEn, are atzerago. Hau da, Hego Euskal Herrian 20 urtetik beherako biztanleriak guztizkoarengan duen pisua aztertutako Europako 17 estatuena baino baxuagoa da.

Biztanleria adin tarte ezberdinek urteetan zehar izandako bilakaera aztertzea EAEn soilik bada posible ere, interesgarria deritzogu honi begiratu bat ematea, 0-19 urte bitarteko biztanleriak eta 65 urtetik gorakoak izandako bilakaera aztertzea hain zuzen.

1986an biztanleria guztiaren %30,19 izatetik 1996an %19,47 izatera igaro zen 0-19 bitarteko biztanleria; populazio gaztearen murrizketa nabaria eman da beraz hamarkada horretan. 2001ean aldiz, %18,12koa zen 0-19 urte bitarteko biztanleriaren pisua; biztanleria gaztearen pisuaren murrizketa beraz, bukatzen hasia dela ondorioztatu dezakegu.

65 urtetik gorakoen portzentaia %10,21koa zen 1986an, %16,06koa 1996an eta %16,98koa 2001ean. 1986 eta 1996 bitartean biztanleria helduaren pisua asko gehitu bazen ere, joera hau ahaltzen hasia dela 1996tik hona ikus dezakegu.

Inmigrazioari buruzko datuak ere interesgarriak dira. Aurreko Egoeraren Azterketan, etorkinen kopurua zein zen Hego Euskal Herrian aurreratzeko gaitasun gertatu zen. Oraingo honetan, EBeko jatorriko etorkinek EAEn biztanleria osoaren %0,4a eta EBetik kanpokoek %1,1a suposatzen dutela esan dezakegu. Honek suposatzen du, 8.330 direla EBetik etorritako etorkinak, eta 22.908 EBeko kanpotik etorritakoak EAEn.

Nafarroako Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua txostenean EBetik kanpoko etorkinen

jatorria zehaztuagoa agertzen bada ere, ez da EBetik etorritakoen datua zehazten. 21.229 dira EBetik kanpo etorritako etorkinak eta Nafar biztanleriaren %3,8suposatzen dute.

44.137 dira beraz EBetik kanpo etorritako etorkinak Hego Euskal Herrian, biztanleriaren %1,7a suposatzen dutelarik.

**INMIGRAZIOAREN PISUA ETA JATORRIA HEGO EUSKAL HERRIAN**

	EBkoa	%	Ez EBkoa	%	GUZTIRA	%
EAE	8.330	0,4	22.908	1,1	31.238	1,5
Nafarroa			21.229	3,8		
GUZTIRA			44.137	1,7		

*Iturriak: Eustat e Instituto de Estadística de Navarra*

**3**  
**1999ko Osasunaren kontua EAEn**

1999. urterako Osasunaren Kontua Euskal AEen argitaratu berria du Eustatek. Bertan, kapitulu ezberdinetan EAEn osasunean urte horretan gastaturiko diruaren berri ematen da. Kapitulu-kapitulu osasuneko gastuaren berri jakitea baino garrantzitsuagoak diren ondorio ezberdinak atera daitezke txosten honetatik.

Txosten honen arabera, EAEk 2.214,7 milioi euro erabili zituen 1999.an pertsonen osasunerako, urte horretako BPGaren %6,1a. 2003ko aurrekontuak aztertzerakoan heltzen ginen helburu berdina heltzen gara txosten hau aztertzerakoan ere; osasunean gastua (%6,1), BPG %tan neurtua, EBetik baxuena dela EAEn Luxenburgorekin batera.

Beranduago, alderagarria den azken urtearekin konparatzen da gastu hau txostenean, 1997arekin alegia. 1997 eta 1999 artean osasunean gastuak %12ko hazkundera jasan duenaren "berri ona" ematen da, 233,5 milioi eurotako igoera hain zuzen. Datu hau baina, ez da hain baikorra. Izan ere, 1997an osasunean gastuak BPGaren %6,42ko pisua zuen, 1999an baino 3 hamarren altuagoa beraz. 1997eko BPGaren portzentaje berdina zuzendu izan balitz osasunean gastura 1999an, 2.341,2 milioi euro zuzendu behar izango litezkeen, bideratu zirenak baino 126,5 milioi euro gehiago alegia.

Hona hemen datuekin nola jolasten den eta errealitatea nola ezkututzen denaren hainbat artean, beste adibide bat. Erkidegoan sorturiko aberastunarekiko osasunean gastua murriztu denean, gastu hori gehitu egin dela esanez errealitatea ezkututzen da. Osasunean gastua murriztuz doa EAEn urtez-urte, European ere joera hori ematen dela argudiatuz, beste zenbait arlotan argudiatu ohi den bezalaxe. Zerrendan azkenak izanda, egoera hobetzearen aurkako zentzuan joatea ordea, ez da harro sentiarazteko arrazoi.

Osasunean gastaturikoaren %76a (1.683,6 milioi euro) osasunean gastu publikoa izan zen, %24a izan zelarik osasunean gastu pribatua (531,1 milioi euro). Osasunean gastu publikoa BPGaren %tan neurtua %4,6koa izan zen, kasu honetan ere, EBetik baxuena.